



42. Ezin badiozu irabazi,
beldurrarekin bizitzeko
ikasi!

0. AZALA

Beldurra ez da oso emozio-esperientzia atsegina, baina oso erabilgarria izan daiteke; adibidez, kaltegarria izan daitezkeen elementuetatik edota esperientzietatik urrun egoteko balio digu. Gure ustez, beldurrak etorkizunerako prestatzeko ere balio digu.

Beraz, esan dezakegu beldurra izaki guztion berezko sentimendua dela! Eta, beraz, ez lotsatu zuen beldurrak adierazten!

Has gaitezen irakurketarekin jolasean:

- Lehenik eta behin, haurrari aldizkaria erakutsi aurretik, idatzi aparteko orritxo batean azalean dagoen izenburua: Ezin badiozu irabazi, beldurrarekin bizitzeko ikasi!
- Ondoren, jarri itsatsita haurrak ikusiko duen leku batean.
- Jarraian, haurrak orria ikustean, galde iezaiozu: ikusi duzu orria?, zer jartzen du?, zer esan nahi du?, ikusiko dugu aldizkaria?

1. ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

Emaiozu haurrari Elkarrek antolatzen duen 7. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketaren berri eta, nola ez, animatu parte hartzera!

Azalpenaren ondoren, bertan ageri den marrazkiaren inguruan istorio txiki bat asmatzeko proposamena egiten dugu. Gure nahia da istorioa guztion artean sortzea! Hura osatzean, oheratzeko orduan, hartu tartetxo bat ipuina irakurtzeko! Ikusiko duzue... Ikaragarri gustatuko zaie!

2. AURKIBIDEA

Aurkibidea aurrean duzuelarik, irakurri ahoz goran bertan agertzen den laburpena, eta ondoren, horko puntuak irakurriko ditugu, banan-banan. Puntu bakoitza zeri buruz jardungo den asmatzeko aukera izango duzue, ea asmatzen duzuen. Adibidez, irakurri 18. puntua, “LAGUN. Beldurra diot urari!”, eta erabili irudimena. Zer gertatuko zaio Laguni?



42. EZIN badiozu irabazi,
beldurraREkin bizitzEN
ikasi!

3. PUPU ETA LORE

Pupu eta Loreren txanda da oraingoan. Atal honetara iristean, hona zer proposatzen dugun:

- Lehenik eta behin, moztu egingo ditugu bi orriak, eta lauki bakoitza ere bai. Lauki bakoitzean ageri den zenbakia ere moztu egingo dugu. Badaezpada, apuntatu ordena aparteko orri batean, ahaztu gabe!
- Ondoren, mahai gainean edo lurrean jarriko ditugu, nahastuta. Eta esaiozu haurrari: “Begira nola iritsi den Pupu eta Loreren atala. Ondo jarriko dugu?”
- Ea gai zareten komikian ordena jartzeko!

4. PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS

Porrotx beldur da errugbian aritzeko, eta zuek zeren beldur zarete? Irakurri lasai-lasai komikia; zeuek erabaki bakarka edo taldean irakurri nahi duzuen. Ondoren, komikiarekin amaitzean, hauxe egitea proposatzen dugu:

Galdetu haurrari:

- Zer iruditu zaizu komikia?
- Gustatu zaizu?
- Zer gertatu zaio Porrotxi?
- Gertatu zaizu noizbait antzeko zerbait?
- Badakizu ni zeren beldur naizen?
- Eta zu? Zeren beldur zara?

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Har ezazue irudia aurrean, eta irakurri ezazue izenburua. Ondoren, galdetu haurrari:

- Zer esan nahi du, Mugitu seguru! leloak?
- Zer ikusten duzu irudian?



42. EZIN badiozu irabazi,
beldurrarekin bizitzEN
ikasi!

- Eta zeu, seguru mugitzen zara?
- Zer egiten dugu seguru mugitzeko?

Amaitzeko, Tiritatxoren aholkuak irakurriko ditugu, eta betetzen dituzuen aholkuak borobildu egingo dituzue margo batekin, ados?

6. NANA PARKEAN

Atal honetara iristean, galdetu haurrari elkarrekin irakurtzea nahi duen. Hala egin nahi badu, hartu kontuan honako puntua hauek:

- Lagundu haurrari ondo irakurtzen; hau da, komak, puntuak, galdera eta harridura ikurrak eta abar errespetatzen. Askotan ez diegu behar adineko garrantzirik ematen ikur hauei. Kontuan izan behar dugu testu baten egituraketa definitzen dutela eta guztiz garrantzitsuak direla testuaren ulermenerako.

- Egin geldialdiak testu batetik bestera eta galdera batzuk, testua ulertzen ari garela ziurtatzeko.

Irakurtzez amaitzean, aurreko ataletan hasitako hitz bildumara, hitz berriak atxikitzen joango gara: Hitz arraroak, ezezagunak, ekintza adierazten dutenak, *nolako*a galderari erantzuten dietenak...

7. TXOREN ISTORIOAK

Azaldu haurrari irudiek zer-nolako garrantzia izaten duten komikietan. Gero, hauxe egitea proposatzen dizuegu:

- Komikia aurrean duzuelarik, begiratu bost segundoz lehen irudiari, eta jarraian, apuntatu horri zuri batean zer ikusi duzuen.

- Ondoren, partekatu idatzitako zerrenda. Galdera batzuk egin diezazkiokezue elkarri: zer ikusi duzu?, balea ikusi duzu?...

- Gauza bera egin dezakezue ondorengo irudiekin.

- Amaitzean, irakurri komikia goitik beheraino. Eta bertara joateko ibilaldi bat antolatzea ere ez litzateke gaizki egongo!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Mugitu gaitzen apur bat! Irakurritakoa gorputzarekin adierazten saiatzeko proposamena egiten dizuegu. Hau da, irakurtzen hari zareten bitartean, gorputza ibiliko duzue; adibidez, “txakurraren beldur denak, zaunka egiten ikasi beharko du” esaldia irakurtzean, txakur bat imitatu beharko duzue! Ados? ONDO PASA!!



42. EZIN badiozu irabazi,
beldurrarekin bizitzEN
ikasi!

9. LAGUN

Atal honetan ere, beldurrarekin eta beldur horiek nola gainditu jakiteko ideiekin jarraitzen dugu. Kasu honetan, Lagunek beldur dio urari, eta, hondartzara joaten denean, ez da uretara sartzen ausartzen.

Oraingo honetan, Laguni laguntzea proposatzen dizuegu. Horretarako, Lagunentzako gomendioak pentsatu beharko dituzue, urari dion beldurra nola kendu. Hitz egin elkarrekin, eta arrazoitu aholkuak bion artean!

Ea zer-nolakoak ateratzen zaizkizuen!

10. OTSOA

Otsoaren atalean, animalia zoragarri honen inguruko informazioa ematen digute gure laguntxoek. Gure gomendia da ageri den informazioa bion artean irakurtzea. Baina ez da hor bukatuko proposamena! Ez horixe!

Badakizue otsoak film askotan agertu izan direla zineman, ezta? Film anitz politetan gainera!

Zergatik ez duzue horietako bat aukeratu eta ikusten? Guk Entre lobos filma gomendatu nahi dizuegu. Gaztelaniz dagoen arren, izugarri polita da! Seguru gaude gustuko izango duzuela!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Atal honetan, zera egin beharko duzue:

Eskatu haurrari emateko irudiei begirada bat, betiere testua irakurri gabe. Irudi horiez baliatuz, ipuin bat asmatu beharko du, eta, behin ipuina pentsatzean, bata besteari kontatu beharko dio ipuina.

Ipuinak elkarri esan ondoren, benetako istoriotxoak irakurriko duzue bion artean.

Nor gerturatu da gehiago benetako istoriora?

12. MARTIN BERTSO

Martin Bertsoren istorioan murgiltzeko, zera proposatzen dizuegu: esan haurrari bion artean irakurriko duzuela istorioa, baina, barre apur bat egiteko, beste modu batera irakurri beharko duzuela!

Nola? Bada, irakurtzen zabiltzaten heinean, hitzen amaierako letrak luzatuz!!!



42. EZIN badiozu irabazi,
beldurrarekin bizitzEN
ikasi!

Adibidez: “Mari Motots adar batera igo da...” esaldia honela irakurri beharko duzue: Mariiiii
Mototssssss adarrrr bateraaaaa igooo daaaaa... Eta horrela, testu osoa!

Barre onak botako dituzue, seguru!

13. MARIKALANBRE

Mari Kalanbreren testua irakurtzera animatzeko, zera proposatzen dizugu:

Fotokopiatu istorioa, eta esan haurrari testua irakurri nahi badu lehenik eta behin, eta zuk
fotokopiatuko orriak erabiliz, testuan agertzen diren hainbat kontsonante koloreztatu beharko
dituela.

Hona hemen gure proposamena:

M letra gorriz

L letra horiz

S letra berdez

T letra urdinez

P letra laranjaz

R letra morez.

Behin letrak koloreztaturik, animatu testua ahoz goran irakurtzera!

14. LARGABISTA

Haurra istorio polit honetara gerturatzeko, zera egin zenezake: istorioa entzun nahi duzula esan, eta
ez irakurri. Baina, horretarako, norbaitek kontatu beharko dizu istorioa! Nork? Bada, berak...

Baina berak zuri istorioa kontatzeko, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, berak irakurtzea
testua!

Ea lortzen duzuen eta istorioa ederto kontatzea lortzen duen!

Seguru baietz!



42. EZIN badiozu irabazi,
beldurraREkin bizitzEN
ikasi!

15. ZENBATAK

Gure zenbakitxoan atalean ere, zerbaitek beldurra ematen diela dirudi! Oraingoan, testutxoan bion artean irakurtzea gomendatzen dizuegu, eta, irakurtzez amaiturik, zuk zeuk egitea haurrari galdera hauek:

- Zergatik dute beldur zenbatak?
- Telebistan, gauza beldurgarri asko ikusten dituzu?
- Zerk ematen dizu beldur gehien?
- ...

Ondoren, hitz egin dezakezue beldurrezko hainbat pelikulari buruz, eta, nahi izanez gero, film horietako irudiren bat edo beste ikusi ere bai!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Gure laguntxoan elkarrizketa interesgarri hau zuk zeuk irakur diezaiokezu haurrari, eta, irakurri ostean, gaiaren inguruan adierazi nahi diozuna adierazi. Baliteke zure haurrak ez ulertzea oraindik gai hau, edo agian, gaiaren inguruan ez diozu ezer kontatu nahi... Beraz, istorio honekin, zuk erabaki zer egin, zer kontatu, nola...

Maitasunez egiten duzuna ondo eginda egongo da!